

- Nire aita, Zamudioko erregea, gaixorik dago eta osatzeko "Sagar Gorri Miragarria" behar du. Lagunduko al zenidake mesedez?
- Bai noski, lagunduko zaitut.
- Eskerrik asko!!!
- Goazen!!!
- Nora joango gara?
- Beste herri batera, han lagun bat daukat eta berak esango digu non aurkitu "Sagar Gorri Miragarria".
- Ados.

Bidetik Uxue sorginak elezahar zoragarriak eta kantu magikoak irakatsi zizkion. Gauean heldu ziren Gamiz izeneko herrira.

- Heldu gara! Hauxe da etxea!
(ATEA KAX KAX KAX).
- Bai, nor da?
- Uxue, zure laguna.
- Sartu, sartu!
- Norekin zatoz?

Haizea printzesarekin nator. Zure laguntza behar du, June. Bere aita oso gaixorik dago eta "Sagar Gorri Miragarria" bilatu behar du bere aita osatzeko.

June sorgina pentsakor geratu zen.

Azkenean, esan zuen:

- Gaztañadien mendiaren erdi-erdian dago. Txikitan han jolasten nuen nire lagunekin. Lagunduko zaituztet.

Bi orduetan ibili ondoren argi distiratsu bat ikusi zuten. Han erdian sagarrondoa zegoen.

- Itxaron, sagar bat hartu baino lehen esaldi liluragarri hau esan behar dugu hiruron artean.

"Sagarrondo-Sagarrondo emaidazu Sagar Gorri Miragarri bat Zamudioko erregeari osasuna emateko".

Hiru lagunak sagarra hartu ondoren etxerantz bueltatu ziren erratzean. Zamudioko erregea sagarra hartu ondoren sendatu zen eta bi sorginei June eta